

IRAGARPENA, Galdamesko San Pedron (Bizkaia) botika bat zabaltzeko beste eskabide batzuk aurkeztu ahal izateko epeari hasiera ematen zaiola jakinarazten duena.

8075

ANUNCIO por el que se abre el plazo durante el que podrán presentarse otras solicitudes de apertura de farmacia en San Pedro de Galdames (Bizkaia).

8075

Xedapen Orokorrak

LEHENDAKARITZA, LEGE ARAUBIDE ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA

2830

238/1993 DEKRETUA, abuztuaren 3koa, euskal administrazio publikoetan euskararen erabilpenaren normalkuntzarako prozesua ezartzeko zenbait neurri ezartzen dituena.

Azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 14. atalean, Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea bera, finkatuta uzten da, Euskal Autonomi Elkarteke lurralde eremuan kokatutako aginte publikoek zehaztu beharrekoa dela, administrazio publikoetako zein lanpostutarako den derrigorrezkoa bi hizkuntza ofizialak jakitea eta, ondorioz, beste lanpostuetarako, euskara jakitea, merezimendu lez hartuko dela.

Gerora, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, hizkuntzaren normalkuntzari buruzkoa den V. idazpuruan, zehaztuta uzten ditu Lege hartan jasotako oharpenak. Euskal Autonomi Elkarteke bi hizkuntza ofizialak jakitea zein lanpostutarako den derrigorrezkoa zehazten duenean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak bi alderdi zehatzetan garatzen ditu Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko Legearen 14. atalean egindako oharpenak: batetik, lanpostuetako hautaketa prozesuetan eta lanpostuak betetzeko orduan euskara merezimendu lez baliostatzea eta, bestetik, dena delako lanpostua betetzeko baldintzen artean euskara jakin behar dela sartzeko, euskal administrazio publikoek errespetatu behar dituzten baldintza eta mekanismoak zehazten ditu. Jakina denez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen V. idazpuru hori zehaztu eta garatu egin da urriaren 17ko 224/1989 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomi Elkarteke Herri-Administrazioetan Euskararen erabilera normaltzeko plangintza arautzeko den horretan.

Dekretu horren 10.1. atalean, hizkuntzaren normal-kuntza prozesuan administrazio publikoek izan beharreko arta eta jarraipen tresna bat ohartematen da. Era honetako da tresna hori: gutxienez bi urtetik behin, aipatutako prozesuaren ibilia ebaluatuko duen txostena bidaliko dio Hizkuntza Politikarako Idazkaritza

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, REGIMEN JURIDICO Y DESARROLLO AUTONOMICO

2830

DECRETO 238/1993, de 3 de agosto, por el que se articulan diversas medidas para la aplicación del proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas Vascas.

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, establece, en su art. 14, el deber de los Poderes Públicos situados en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma Vasca, de determinar los puestos de trabajo de las diferentes Administraciones Públicas para cuya provisión resulta preceptivo el conocimiento de las dos lenguas oficiales, resultando que, en los demás, el conocimiento del euskera será valorado como mérito.

Posteriormente, la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, ha venido a concretar en su título V, relativo a la Normalización lingüística, las previsiones contenidas en aquella Ley. Por lo que se refiere a la determinación de las plazas para cuyo desempeño resulta preceptivo el conocimiento de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma, la Ley de Función Pública Vasca ha desarrollado en dos aspectos concretos las previsiones del citado art. 14 de la Ley de Normalización, a saber, en el relativo a la valoración del euskera como mérito en los procesos de selección y provisión de puestos de trabajo y en el atinente a la definición de las condiciones y mecanismos que han de ser respetados por las Administraciones Públicas Vascas para incluir el conocimiento del euskera entre los requisitos para el desempeño de un puesto de trabajo. Como es ya conocido, este título V de la Ley de Función Pública Vasca ha sido después objeto de concreción y desarrollo por parte del Decreto 224/1989, de 17 de octubre, por el que se regula la planificación de la normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca.

El art. 10.1 de este Decreto prevé un mecanismo de control y seguimiento del proceso de normalización lingüística de las Administraciones Públicas, consistente en que, al menos cada dos años, la Secretaría General de Política Lingüística habrá de elevar al Consejo de Gobierno Vasco, un informe evaluatorio de la marcha

Nagusiak Eusko Jaurlaritzari eta, kasua bada, Administrazio Publiko bakoitzarentzat finkatutako helburuak betetzea ziurtatzeko beharrezko iritzi ditzan neurri zuzentzaileak proposatuko dizkio.

Administrazio publikoen Hizkuntza Normalkuntzarako Plana martxan jarri zenetik lehenengo bi urteko aldia igaro denez gero, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak Jaurlaritzari bidali dio iadanik bere balioespen txostena; eta azterlan, analisi eta konparaketa horren ondorio, Dekretu hau ateraten da. Euskal administrazio publikoetan euskararen erabilera normaltzeko prozesua arauzkotzeko arauterian planerako ohartemandako ezarpen eremua zabaldu eta administrazio publiko guztiei hedatzekoa dela xedatzen da Dekretuan.

Neurri hori hartzeko, bi arrazoi daude: batetik, aipatutako arauteriak Legearen manuak garatzen dituzenez, bere ezarpen eremua Legearentzako ohartemandakoari egokitu behar zaiolako, eta, bestetik, euskal administrazio publikoek, orohar eta ia salbuespenik gabe, iadanik hedatuta duten praktikari arauzko babesa eman behar zaiolako,

bakoitzak bere lanpostuen zerrendak egiterakoan jartzen dituen baldintzen artean hizkuntza eskakizuna sartzen duenez gero. Hala ere, eremu horretan Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak sartzen dira bakarrik, eta ez Hezkuntza Administrazioa, Osasun Administrazioa eta Ertzaintza, hau da, Autonomi Elkarteko Administrazioa sartzen da bakarrik, horiek bereziak direlako; bestalde, hezkuntzaren eremuan oraindik oraintsu finkatu da bere arauteri desberdin eta propio zehatza, osasunarenean, ostera, ez da oraindik garatu Osasuna arautzeko Legea eta hortik aurrera finkatutako da bere arautegia, eta Ertzaintzak, azkenik, arau berezien bidez antolatuta dagoenez, bere arauteri propioa beharko luke.

Xedapen honetan ohartemandako neurriak, urriaren 17ko 224/1989 Dekretuan jasotako xedapenen osagarri izatea nahi denez, nahiz eta desberdinak izan, administrazio publikoek duten helburu amankomuna lortzeko antolatzen dira, hau da, dekretu horretan finkatutako helburuak lortzeko. Administrazio publikoetan hizkuntzaren normalkuntza lortzeko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean eta horren garapenerako arauetan atalkatutako plana martxan jartzerakoan, zenbait arazo praktikoa agerian azaldu dira -eta ez zen gutxiagorako ere, autonomia osoz eta ex novo-tik taiututako plana izanik, bere ezarpen prozesuan era guztietako erresistentziak gainditu beharrean aurkitu delako, eta, edozein aldaketak sortzen duen beldurraren ikuspuntutik begiratuta, horietako batzuk ulertzeko modukoak dira-, eta hemen arazo horiek konpontzeko neurriak hartu nahi dira. Dekretu honetan jasotako neurriak aipagarrienetakoak hauek dira:

- Kasu batzuetan luzatu egiten da hizkuntza eskakizuna derrigorrezko bihurtzeko ohartemandako epea. Hizkuntza eskakizuna lortzeko ahaleginen bat egin duten enplegatu publikoek hori lortzeko erraztasuna izan dezaten egiten da. Ildo horretatik, hizkuntza eskakizunentzako aldibaterako salbuespenen jaurbidea jasotzen da.

del referido proceso, proponiendo, en su caso, las medidas correctoras que estimare necesarias para asegurar el cumplimiento de los objetivos fijados para cada Administración Pública.

Transcurrido ya el primer bienio desde la implementación del Plan de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, la Secretaría General de Política Lingüística ha elevado ya su informe evaluatorio, de cuyo estudio, análisis y contraste resulta el presente Decreto. Mediante el mismo, se viene a ampliar el ámbito de aplicación previsto para el plan en la normativa reguladora del proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas Vascas haciéndola extensible a todas ellas.

Dos son las razones que aconsejan la adopción de esta medida: la de acomodar el ámbito de aplicación de la normativa citada al previsto para la Ley cuyos preceptos desarrolla, y la de dar cobertura normativa a la práctica, extendida ya, casi sin salvedades en el conjunto de las Administraciones Públicas Vascas, de incluir el perfil lingüístico entre las prescripciones contenidas en sus respectivas relaciones de puestos de trabajo.

Sin embargo se mantiene la inclusión en su ámbito de tan sólo la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos y no se amplía a la Administración Educativa, Sanitaria o Ertzaintza, esto es a la Administración de la Comunidad Autónoma en razón a la especificidad de estos y a que en el ámbito educativo ya se ha establecido recientemente su regulación diferenciada y específica, y en la sanitaria no se ha desarrollado la Ley de Sanidad a partir de la cual se establecerá su regulación, mientras que la Ertzaintza tiene una regulación específica que requeriría una normativa propia.

Las medidas previstas en la presente disposición, que pretenden servir de complemento a las incluidas en el (repetido) Decreto 224/1989, de 17 de octubre, se ordenan, pese a su diversidad, a la finalidad común de facilitar a las Administraciones Públicas la consecución de los objetivos fijados en éste último. La implementación del plan de normalización lingüística de las Administraciones Públicas articulado en la Ley de Función Pública Vasca y en su normativa de desarrollo ha puesto de manifiesto ciertos problemas prácticos -como no podía ser de otra manera, en un Plan que, concebido autónomamente y diseñado ex novo, se ha visto en la necesidad de vencer resistencias de todo tipo en su proceso de aplicación, algunas de ellas comprensibles desde la perspectiva del temor natural a todo cambio- cuya resolución se pretende arbitrar. Algunas de las medidas más relevantes que el presente Decreto contempla son las siguientes:

- Se dilata, en algunos casos, el plazo previsto para que el perfil lingüístico devenga preceptivo, con el objeto de facilitar su cumplimiento por parte de los empleados públicos que hayan desarrollado algún esfuerzo en tal sentido. En este sentido, se prevee un régimen de exenciones transitorias a los distintos perfiles.

– Salbuespenen zerrenda zabaldu egiten da; oinarriko prestakuntza nahikorik ez dutelako, beren lanpostuari izendatutako euskara maila lortzeko gaitasunik ez duten enplegatu publikoak zerrenda horretan sartzen dira.

– 1. eta 2. hizkuntza eskakizunak egiaztatze saioetan, egun dauden euskalki guztiak hartuko dira kontuan, Euskaltzaindiaren txostena jaso ondoren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak egindako gomendioen arabera.

– Iadanik indarrean dagoen Hizkuntza Eskakizunak arauzkotzeko Dekretua (17. atala) hobeto betetzeko, Dekretu honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak, hamar mila biztanle baino gutxiagoko lurralde eremuetako administrazioei, hizkuntza normalkuntzarako planaren berariazko tratua emateko txostena bidaliko diela finkatzen da hemen; egin ere, erakunde bakoitzak dituen neurri eta lurraldearen arabera berezitasunak kontuan izanik egingo da.

– Aurreko lerroaldian aipatutako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren txostenaren indarrez laguntza tekniko behar duten administrazio publikoek eta, nolahi ere, bost mila biztanle baino gutxiagoko udalerriek, bertoko euskaldunen kopurua biztanleen %10a baino handiagoa ez bada, laguntza hori HAEEK emango diela xedatzen da.

– Hizkuntzaren erabilaren normalkuntzarako politikaren plangintzarako tresna lez, hizkuntza eskakizunak egiaztatze Erregistro bakar bat sortzen da. Era berean, edozein hizkuntza eskakizun egiaztatzen dela ere, egiaztapena unibertsala izan behar dela pentsatzen da (administrazio guztientzat balio duena) eta denbora mugapenik gabekoa (betiko balio duena).

Ondorioz, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak egindako txostena eta proposamena ikusita, Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko abuztuaren 3an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. Atalburua

Erabilpen eremua

1. atala.– 1.– Dekretu honen ezarpen eremua eta euskal administrazio publikoetan euskararen erabilaren normalkuntza prozesua arauzkotzeko beste arauteri guztiena hauxe izango da:

- a) Euskal Autonomi Elkarte Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoak;
- b) Herri-Kontuen Euskal Epaitegia;
- c) Lan Harremanen Kontseilua;
- d) Foru eta Toki Administrazioak eta beren erakunde autonomoak;
- e) Lurralde historikoetako Batzar Nagusiak.

– Se amplía la relación de exenciones incluyendo en la misma a aquellos empleados públicos que, por carecer de formación básica suficiente, se encuentren incapacitados para alcanzar el nivel de euskera asignado a su puesto de trabajo.

– En las pruebas de acreditación de los perfiles lingüísticos 1 y 2, se tendrán en cuenta las diferentes variedades dialectales existentes, en el marco de las recomendaciones que, previo informe de Euskaltzaindia, emita la Secretaría General de Política Lingüística.

– Se establece que, para el mejor cumplimiento del Decreto de Perfiles ya en vigor (art. 17), que la Secretaría General de Política Lingüística remitirá, a las Administraciones en cuyo ámbito territorial hubiera menos de diez mil habitantes, en el plazo de un año desde la entrada en vigor del presente Decreto, informe relativo a su tratamiento específico en el plan de normalización lingüística, teniendo en cuenta las particularidades de cada entidad en razón de su dimensión y territorio.

– Se dispone que por el I.V.A.P. se prestará asistencia técnica a aquellas Administraciones Públicas que lo precisen en virtud del informe de la Secretaría General de Política Lingüística al que hace referencia el párrafo anterior, y en todo caso, a los Municipios menores de cinco mil habitantes con un porcentaje de euskaldunes que no supere el 10% de dicha población.

– Se crea un Registro único de acreditación de perfiles como instrumento de planificación de la política de normalización lingüística. Así mismo se estima que la acreditación de un perfil lingüístico debe ser universal (válida para todas las Administraciones) e intemporal (válida en el tiempo).

En su virtud, visto el informe emitido y la propuesta formulada por la Secretaría General de Política Lingüística, a propuesta del Consejero de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonomo y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 3 de agosto de 1993,

DISPONGO:

Capítulo I

Ambito de Aplicación

Artículo 1.– 1.– El ámbito de aplicación del presente Decreto, así como del resto de la normativa reguladora del proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas Vascas será el siguiente:

- a) La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.
- b) El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
- c) El Consejo de Relaciones Laborales.
- d) La Administración Foral y Local y sus Organismos Autónomos.
- e) Las Juntas Generales de los Territorios Históricos.

2.- Aurreko zenbakian esandako arauetan euskal administrazio publikoei buruz egindako aipamenetan, atal honetako lehenengo idazatian jasotako administrazioei bakarrik egindakoak direla ulertuko da.

II. atalburua

Hizkuntza eskakizunak egiaztatze erak

2. *atala.*- 1.- Euskal administrazio publikoen zerbitzuan diharduten karrerako funtzionariak eta lan-itunepeko langile finkoak hizkuntza eskakizunak betetzen dituztela egiaztatze, era honetara jokatuko da:

a) administrazioan sartzeko edo barne promozioz lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuetan horretarako egin daitezen saioen bidez;

b) Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak edo edozein euskal administrazio publikok, berariaz helburu horretarako eta hurrengo atalean xedatutakoaren arabera, egindako aldiak deialdien bidez.

2.- Kasu bakoitzean beharrezkoa den euskara maila balioestatzeko jarritako saioak, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak horretarako zehaztutako edukin eta moduetara egokitu behar dira; saioak epaitzeko ardura izango duten epaimahai edo kalifikazio batzordeen osakeran, Erakunde horri dagokion ordezkariak bete beharko da.

3.- Aldi berean, lehenengo eta bigarren hizkuntza eskakizunei dagokienez, saio horietarako, egun bizirik dauden euskalki guztiak hartuko dira kontuan, Euskaltzaindiaren txostena jaso ondoren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak horri buruz emandako erabakiaren arabera.

3. *atala.*- Hizkuntza eskakizunak egiaztatze berariazko prozesuak (lanpostuetarako hautatu eta horiek betetzeko direnak salbuespen direla), era honetan garatuko dira:

1.- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, aldiak aldiak, Autonomi Elkarte Administrazioaren zerbitzuan diharduten karrerako funtzionariak eta lan-itunepeko langile finkoak hizkuntza eskakizunak betetzen dituztela egiaztatze berariazko saioetarako deialdiak egingo ditu.

Saioak sei hilabetetik behin egingo dira gutxienez.

2.- Era berean, beste euskal administrazio publiko batzuek horrela eskatzen dioetenean, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak burutuko ditu haien deialdietako saioak.

3.- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen deialdiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Administrazioaren edo lan-ituneen ikuspuntu egoera dena delakoa izanda ere, edozein euskal administrazio publikoren zerbitzuan diharduten karrerako funtzionariak eta lan-itunepeko langile finkoak parte hartu ahal izango dute haietan, administrazio publiko horrek beretzat ere saio horiek egitea HAE-Eri eskatzen badi.

2.- Las referencias contenidas en la normativa citada en el número anterior a las Administraciones Públicas Vascas, se entenderán siempre hechas a las comprendidas en el apartado primero de este artículo.

Capítulo II

Formas de acreditación de los Perfiles Lingüísticos

Artículo 2.- 1.- La acreditación del cumplimiento de los perfiles lingüísticos por los funcionarios de carrera y el personal laboral fijo al servicio de las Administraciones Públicas Vascas, se llevará a cabo:

a) Mediante las pruebas que al efecto se celebren en los procesos selectivos de ingreso o en los convocados para la provisión interna de puestos de trabajo.

b) A través de las convocatorias periódicas que, con esa específica finalidad, y conforme a lo que se dispone en el artículo siguiente, se realicen por el Instituto Vasco de Administración Pública o por cualquiera de las Administraciones Públicas Vascas.

2.- Las pruebas destinadas a la evaluación del conocimiento del Euskera necesario en cada caso, se adecuarán a los contenidos y formas que al efecto se hubieran determinado por el Instituto Vasco de Administración Pública, y en la composición de los tribunales o comisiones calificadoras encargados de juzgarlas se observará la representación que corresponda a dicho Instituto.

3.- Asimismo, en dichas pruebas se tendrán en cuenta, en lo que al perfil uno y dos se refiere, las diferentes variedades dialectales existentes, conforme a la resolución al respecto, que, previo informe de Euskaltzaindia, emita la Secretaría General de Política Lingüística.

Artículo 3.- Los procesos específicos de acreditación de perfiles lingüísticos (excluidos los que se realicen para selección y provisión de puestos), se desarrollarán de la forma siguiente:

1.- Por el Instituto Vasco de Administración Pública se convocarán, periódicamente, pruebas específicas destinadas a la acreditación del cumplimiento de los perfiles lingüísticos por los funcionarios de carrera y personal laboral fijo al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma.

La periodicidad de las pruebas será al menos de carácter semestral.

2.- Asimismo, cuando así se le encomiende por otras Administraciones Públicas Vascas, el Instituto Vasco de Administración Pública llevará a cabo las pruebas que correspondan a sus respectivas convocatorias.

3.- Las convocatorias del Instituto Vasco de Administración Pública se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco, y en ellas podrán tomar parte, con independencia de su situación administrativa o laboral, los funcionarios de carrera y el personal laboral fijo al servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas Vascas que se lo hubieren encomendado.

Besteen deialdiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo, bestela, bakoitzaren Lurralde Historikoko aldizkarian egingo dira, foru aldundien, Batzar Nagusien edo udalen deialdiak baldin badira. Deialdia egiten duen administrazioaren zerbitzuan diharduten karrerako funtzionariak eta lan-itunepeko langile finkoak baino ezingo dira aurkeztu haietara, beren administrazio edo lan-ituneen ikuspuntuko egoera edozein dela ere.

4.- Atal honetan aipatutako prozesuetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea inola ere ez da hamar egun natural baino laburragoa izango. Hori amaituta, onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratuko du deialdia egiten duen administrazioak eta arazoibideak aurkezteko epea zabalduko du; epe hori ez da zazpi egun natural baino txikiagoa izango. Esandako epea amaitu eta aurkeztutako arazoibideak erabaki ondoren, onartutako izangaien behin-betiko zerrenda argitaratuko da.

5.- Argitalpena egiteko beste eraren bat deialdian bertan zehazten ez bada, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo, bestela, bakoitzaren Lurralde Historikoko aldizkarian argitaratuko dira onartu eta bazter utzitako izangaien zerrendak.

6.- Epaitu behar dituzten saioen edukinari egokitzten zaiona izango da epaimahai kalifikatzaileen osakera. Kideak, gehien bat, 4. edo T.G. hizkuntza eskakizuna egiaztatu duten karrerako funtzionariak edo lan-itunepeko langile finkoak izango dira. Izendapena, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo, kasua bada, bakoitzaren Lurralde Historikoko aldizkarian argitaratuko da. Nolanahi ere, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak berak egin gabeko deialdien kasuan, bere ordezkari bat egongo da epaimahai horietan.

7.- Deialdietan, edozein administrazio publikok egindakoak izanda ere, beste bigarren saio edo konparaziozko azterketa batzuk egingo direla jasoko da. Lehenengoak egin eta sei hilabete igaro baino lehen burutuko dira bigarrenak eta lehenengoetara aurkeztu arren gaiditzerik lortu ez duten izangaiak baino ezingo dira saiatu.

8.- Deialdietako saioen emaitzak, izangaiak egiaztaturiko hizkuntza eskakizunen azalpena eginez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo, bestela, bakoitzaren Lurralde Historikoko aldizkarian argitaratuko dira.

9.- Saioen emaitzak edo aurreko 7. eta 8. idazrietan aipatutako konparaziozko azterketen emaitzak argitaratzen direnean hasita izango dituzte ondorioak hizkuntza eskakizunen egiaztapenek.

4. atala.- 1.- Dekretu honetan oharmandako eretara egiaztaturiko hizkuntza eskakizunek balio osoa izango dute indarrean dagoen arauterian oharmandako ondorioetarako eta euskal administrazio publiko guztien aurrean; helburu horretarako beste saiorik egin beharrik ez dute izango, hizkuntza eskakizuna betetzen dutela horrela egiaztatzen dutenek.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, ofizioz edo norberak eskatuta, bakoitzak bere hizkuntza eskakizuna betetzen duela egiaztatzeko ziurtagiriak igorriko ditu.

Las restantes convocatorias se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco, o en el del Territorio Histórico respectivo cuando se efectúen por Diputaciones Forales, Juntas Generales o Ayuntamientos, y a las mismas únicamente podrán concurrir los funcionarios de carrera y el personal laboral fijo que se encuentre al servicio de la Administración convocante, cualquiera que sea su situación administrativa o laboral.

4.- El plazo de presentación de solicitudes para tomar parte en los procesos a que se refiere este artículo no será, en ningún caso, inferior a diez días naturales. Finalizado el mismo, la Administración convocante hará pública la relación provisional de aspirantes admitidos, concediendo un plazo no inferior a siete días naturales para formular reclamaciones. Concluido dicho plazo y resueltas las presentadas, se hará pública la relación definitiva de aspirantes admitidos.

5.- Salvo que en la convocatoria se determine otra forma distinta de publicación, las relaciones de aspirantes admitidos y excluidos se harán públicas en el Boletín Oficial del País Vasco o, en su caso, en el del Territorio Histórico correspondiente.

6.- La composición de los Tribunales Calificadores se ajustará al contenido de las pruebas que les corresponda juzgar, y la designación de los miembros que las integren, que mayoritariamente serán funcionarios de carrera o personal laboral fijo con perfil lingüístico acreditado 4 o T.P., se hará pública en el Boletín Oficial del País Vasco o, en su caso, en el del Territorio Histórico correspondiente. En todo caso, en dichos Tribunales figurará, cuando se trate de convocatorias no efectuadas por el Instituto Vasco de Administración Pública, un representante de este último.

7.- Las convocatorias, cualquiera que sea la Administración Pública que las efectúe, contemplarán la realización de unas segundas pruebas o exámenes de contraste, que se celebrarán dentro del plazo de seis meses desde la realización de las primeras, y a las que únicamente podrán concurrir aquellos aspirantes que habiéndose presentado no hubieran superado aquéllas.

8.- El resultado de las pruebas convocadas, con expresión de los perfiles lingüísticos acreditados por los aspirantes, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco o, en su caso, en el del Territorio Histórico correspondiente.

9.- Los efectos relativos a la acreditación de los perfiles se producirán desde la publicación de los resultados de las pruebas o exámenes de contraste a que se refieren los apartados 7 y 8 anteriores.

Artículo 4.- 1.- Los perfiles lingüísticos acreditados a través de las formas previstas en este Decreto, serán válidos a cualquiera de los efectos previstos en la normativa vigente y ante la totalidad de las Administraciones Públicas Vascas, eximiendo a quienes así hubieran verificado su cumplimiento de la realización de nuevas pruebas con ese mismo fin.

El Instituto Vasco de Administración Pública, de oficio o a instancia de parte, expedirá certificaciones acreditativas del cumplimiento del correspondiente perfil lingüístico.

2.- Aurreko idaztarian oharmandako ondorioetarako, abuztuaren 30eko 461/1991 Dekretuaren 15.2 c) atalean aipatutako erregistroa eratzen da Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen. Plangintza tresna lez eratzen da, bertan informazioa erasota utziaz, hizkuntzaren normalkuntzarako neurriak administrazioek zein mailatan betetzen dituzten jasotzeko; Dekretu honetan oharmandako edozein erataria egiaztaturiko hizkuntza eskakizunak erregistro horretan inskribatuko dira. Bakoitzak betetzen duen hizkuntza eskakizuna, Erregistroko oharpenek eta igorriko diren oharpenen ziurtagiriek egiaztatuko diote interesatuari berari eta edozein euskal administrazio publikori.

3.- Erregistroko oharpenak ofizioz egingo ditu Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak. Ondorio horietarako, erakunde horrek epaimahaietan edo batzorde kalifikatzaileetan izango dituen ordezkariak, HAEERI saioaldi bakoitzean egiaztaturiko hizkuntza eskakizunen berri ematera behartuta daude.

4.- Hizkuntza eskakizunen egiaztapenak jasoko dituen erregistroan eraskin bat ere egongo da honako agiango kasuok jasotzeko: batetik, hautaketa prozesuren batean zehar hizkuntza eskakizun zehatzen bati dagokion maila erakutsi bai, baina prozesu horren baitako hautaketa ikastaroa edo proba aldia gainditzeke daudenak, eta, bestetik, deialdiko oinarri-arauetan horrela oharteman delako, beharretsitako hizkuntza eskakizuna baino bi maila beheragokoa egiaztuta izan eta praktika aldia amaitu ordurako bere lanpostuari dagokion maila gaindetu behar dutenak. Hala ere, agiango kasu horietakoak dituzten administrazio guztien betebeharra da, agiango kasuoi buruz gertaturiko edozein gora-beheraren berri Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeari ematea.

III. atalburua

Hizkuntza eskakizunak betetzeko salbuespenak

5. *atala.*- Adina dela-eta hizkuntza eskakizunak betetzetik salbuesteko, bata zein bestea berdin dela, bakoitzaren administrazio langilegoaren erregistroaren ziurtagiriak edo Nortasun Agiri Nazionalaren kopia kautotuaren bidez egiaztatuko da jaioteguna.

